

27.

OLERKIA

IPUINA

KOMIKIA

BERTSOA

MIKROIPUINAK

Koldo Mitxelena

LITERATURA

LEHIAKETA


2016

8-18 urte bitartekoak

IKUSI OINARRIAK HEMEN: www.donostiaeuskaraz.eus



Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián
Euskara Zerbitzua



DSS2016.EU

1. Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza, Batxilergo eta Lanbide Heziketan ari diren Donostiako ikastetxee-tako ikasleek (8-18 urte) parte har dezakete.
2. Adin kategoria hauek bereiziko dira:
B- Lehen Hezkuntzako bigarren zikloa (8-10 urte)
C- Lehen Hezkuntzako hirugarren zikloa (10-12 urte)
D- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako lehen zikloa (12-14 urte)
E- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako bigarren zikloa (14-16 urte)
F- Batxilergoa eta Lanbide-Heziketa (16-18 urte)
3. Bost lehiaketa mota izango dira, baina adin tarte guztietan ez dira denak eskainiko:
Komikia · Olerkia · Ipuina · Bertso papera · Mikroipuina
4. Lehiaketako lanek euskaraz idatziak, originalak eta inon argitaratu gabeak izan beharko dute. Baldintza hauetakoren bat bete ezean, lehiaketatik kanpo geratuko da egilea, horretarako epaimahaiak eta Donostiako Udaleko Euskara Zerbitzuak berariazko erabakia hartu eta gero. Epaimahaiak, epaia publiko egin eta gero, frogatuko balu saritutako lanen batek ez duela baldintza horietako bat betetzen, jasotako sariak itzuli beharko ditu egileak.
Lanak bakarkakoak izango dira sail guztietan.
5. Kategoria bakoitzeko lehiaketa mota bakoitzaren lanen luze-laburrak hauek izango dira:

Kategoria	Komikia	Olerkia	Ipuina	Mikroipuina	Bertsoa
	Gutxienez	Gutxienez / Gehienez	Gehienez	Gehienez	Gutxienez / Gehienez
B	DIN A4: 4 Lauki	-	3 orri (6.000 karaktere)		3 bertso / 12 bertso
C	DIN A4: 6 Lauki	32 lerro / 100 lerro	5 orri (10.000 karaktere)		
D	DIN A4: 6 Lauki	40 lerro / 100 lerro	7 orri (14.000 karaktere)		6 bertso / 12 bertso
E	DIN A4: 6 Lauki	45 lerro / 100 lerro	10 orri (20.000 karaktere)	100 hitz	
F	DIN A4: 6 Lauki	50 lerro / 100 lerro	10 orri (20.000 karaktere)	100 hitz	8 bertso / 12 bertso

6. Lanak ikastetxeetan edo Udaleko Euskara Zerbitzuan aurkeztu behar dira, eta lanen aurre aukeraketa ikastetxeen ordezkari- karek osatutako epaimahai batek egingo du.
7. Kategoria bakoitzeko eta lehiaketa mota bakoitzeko saritu bakarra izango da. Bestalde, egile batek ezingo du bi modali- tate desberdinetan irabazi.
8. Parte-hartzaileen lanak 15 egunez gordeko dira sari banaketa egiten den egunetik aurrera kontatuta. Epe hori gaindituta, egileek ezingo dute lana berreskuratu.
9. Donostiako Udaleko Euskara Zerbitzuak lehiaketara aurkeztutako lanak argitaratzeko eskubidea izango du egilearen izena adieraziz. Lan hauek prentsa idatzian, ohiko argitalpen modura edota internet sarean eman ahal izango ditu ezagutzera.
10. Epaimahaiak ondoko hauek osatuko dute: Iñaki Martiarena "Mattin", Ana Malagon, Beñat Gaztelumendi, Arantxa Urretabizkaia, Yolanda Arrieta eta Inazio Mujika idazle, bertsolari eta komikilariek. Epaimahaiaren erabakia apelaezina izango da. Sarien behin betiko esleipena, lanak aurkezteko epea amaitzen denetik hiru hilabetera egingo da, gehienez ere.
11. Aurkeztutako lanek epaimahaiaren ustez gutxieneko mailarik ez badute, sariak eman gabe gera daitezke. Kategoria bate- ko lehiaketa mota batean saria eman gabe utziz gero, kategoria bereko beste modalitate batean bi sari eman daitezke epaimahaiak hala erabakita.
12. B, C eta D kategorietan sariak opariak izango dira; E eta F kategoriakoek, aldiz, Urruzuno Literatura Lehiaketako ira- bazleekin batera bost eguneko prestaketa-egonaldian parte hartzeko aukera izango dute. Literatura-tailerraz eta idazte- arekin zerikusia duen beste hainbat ekintzaz osatuko da egonaldi hori.
Laguntzaile izango dute, uneoro, euskal idazle bat. Aukera eman nahi zaie ikasleei, alde batetik, idazle horrekin gertuko eta zuzeneko harremana izateko eta, bestetik, Euskal Idazleen Elkartearekin elkarlanean, idazle gazte hauen aurrerabi- derako literatura-tutoretza bideak aztertzeke.
13. Lanek **2016ko otsailaren 10erako** Donostiako Udaleko Euskara Zerbitzuaren eskuetan egon beharko dute, honako helbi- de honetan: Konstituzio plaza, 2 – behea – 20003 Donostia.
14. Ipuina, mikroipuina, olerkia, eta bertso papera lanak ordenagailuz, A4 neurrian tarte bikoitzez eta alde bakarretik idatzi- ta aurkeztu behar dira. **Lan originala bakarrik aurkeztu behar da, kopiari- k gabe.**
15. A) Lanaren izenburuak lehen orrialdearen goiko aldean, erdi-erdian, joan beharko du eta honen eskuinetara izengoitia letra handiz idatziko da, lehiaketa mota eta kategoria adieraziz. Ipuinaren kategorian, egindako karaktere kopurua lana- ren azalean adierazi beharko da. Egilearen izenak ez du inon agertu behar.

DATUEN BABESA: eskabide orri honetako datuak Donostiako Udaleko Euskara Zerbitzuaren fitxategian erantsiko ditugula eta eskabidean azal- dutako helburuetarako erabiliko direla jakinarazten dizugu, abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak (1999-12-14ko BOE), datu pertsonalak babestekoak, 5. artikuluan xedatutakoarekin bat. Emandako zenbait datu literatur lehiaketako erakunde laguntzaileei jakinaraziko dizkiegu. Datu horiek ikusteko, zuzentzeko eta ezabatze-ko eskubideak erabili ahal izango dituzu aipatutako legeak aurreikusten duen eran.